LEMOAKO UDAL HILERRIKO ZERBITZUA KONTRATAZIORAKO XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA. PROZEDURA IREKIA. HAINBAT ESLEIPEN-IRIZPIDE.

I. KONTRATUREN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Lemoako Udal Hilerriko zerbitzu publikoa kudeatzea.

Udal Hilerria kudeatuko da zorrozki beteta hilotzen sanitate-alderdiei buruzko araudi aplikagarrian xedatutakoa; hots: Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/86 Lege Orokorra, Hilotzen Sanitate Alderdiei buruzko Araudia, Lemoako udal-barrutiko Udal Hilerriari buruzko Araudia eta Hileta-zerbitzu publikoak emateko baldintzen ordenantza arautzailea, bai eta ondoko arauak beteta ere:

- Hileta-eskubideak soilik hartuko du barne Hilerriko hilobien, horma-hilobien eta kolunbarioen erabilera; horien jabari publikoaren jabetza Lemoako Udalarena da, eta berarena bakarrik, Udal Hilerriari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera. Ondorioz, ezingo dira izan inolako salerosketa, truke edo merkataritza-akordioren xede; soilik izango dira baliodunak Udal Araudian aurreikusitako eskualdatzeak.

- Eskubidearen arrazoia eta xedea izango da hilotzak eta hilotz-hondarrak ehorztea, eta, beraz, soilik egikaritu ahal izango da heriotza gertatzen denean edo hondarrak lekualdatu behar direnean, Araudian xedaturikoaren arabera.
- Hondarrak murriztuko dira, Hilerrian, Hilotzen Sanitate Alderdiei buruzko Araudian ezarri bezala.

- Kontratua esleitu eta urtebeteko epean, esleipendunak Hilerriko hileta-eskubideen titulartasunaren eta esleipen-aldiaren gaineko datuak eguneratuko ditu.
- Hondarrak hobitik aterako dira hileta-eskubidea iraungitakoan.

- Udalak ekitaldiak egin ahal izango ditu Hilerrian.
- Hilerriko zerbitzuak emango dira erabiltzaileek dagozkion eskaerak egindakoan Lemoako Udalean.

- Esleituriko ehorzketa-unitateetan norbanakoek obrak eta eraikuntzak egiteko, udal-baimena eskuratu beharko dute.
- Esleipendunak bere kontura egindako obrak eta eraikuntzak Udalaren esku geratuko dira, emakida bukatutakoan.

2.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK

Indarreko legerian ezarritako betebehar orokorrez gain, esleipendunak betebehar zehatz hauek izango ditu:

- Hilotzak eta hondarrak ehorzteko, haiek jaso eta eraman, eta, hala dagokionean, gorputegian gorde.

- Ehorzteko edo, hala badagokio, hobitik ateratzeko beharrezko jarduketa materialak egin, bai eta hobiak ixteko eta estaltzeko ere, senideek hala eskatzen duten egunean.

- Horma-hilobia ixteko eta bertan trenkadura egiteko beharrezko jarduketak egin, ondoren plaka jartzeko egoera egokian utzita.

- Debekatuta dago hildakoaren senideei inolako ordainsari edota kanonik eskatzea Baldintza-orri honetan aurreikusitako zerbitzuak emateagatik.
- Hilobiak hustu eta garbitu osteko arropak suntsitu, eta objektuak eta hilerriko lanabesak zaindu.

- Hilerri barruko funtzionamendu ona zaindu, lekuari zor zaion errespetua kaltetuko duten ekintzak eta pertsonak edo jarduerak ekidinda.

- Telefono bat eduki behar du eskura, Udala une oro jarri ahal izateko harremanetan berarekin.

- Zerbitzua berak eman behar du, hots, ezingo du besteren esku laga, alokatu edo eskualdatu, Udalaren esanbidezko baimena izan ezean.

- Esleipenduna gaixotu egingo balitz, edo ez balego udalerrian, zerbitzua nola emango den aurreikusita izan, zerbitzua etenik gabe ematen jarrai dadin.

- Hilerrian ehorzten edo hobitik ateratzen diren Hilotzen Erregistroaz arduratu, indarreko araudian jasotako baldintzen arabera.

- Alkatetzaren jarraibide bereziak bete.

- Arkitekto Tekniko andreari hilerri barruan gerta daitezkeen arazoen berri eman, eta Udalean horri dagokionez administrazio-lanaz arduratu behar duen funtzionarioari jakinarazi.
- Udal-zerbitzuei lagundu eta haiekin elkarlanean aritu.
- Hilerriko instalazioak margotu, urtean behin, Domu Santu eguna baino lehen.
- Hilerriko argiztapenaz arduratu, Udalak ezartzen duen ordutegian.

- Hobien, hilobien eta horma-hilobien kanpoaldeko eremuak HILEAN BEHIN garbitzeko konpromisoa hartu, behar bezala txukunduta, garbi eta saneatuta egon daitezen.

- Belardia egoera ezin hobean izateko lorezaintza-lanak egin, hilean behin.

3.- KONTRATISTARI ESKA DAKIZKIOKEEN BALDINTZAK.

Enpresa esleipendunak ondokoak izango ditu:

- Hilotzak jasotzeko eta garraiatzeko ekipo bereziak.
- Zerbitzuak emateko enpresa egitura eta antolaketa.

- Etengabeko arreta-zerbitzuak.
- Langile nahikoak zerbitzua emateko, eskarmentudunak hileta-zerbitzuak kudeatzen eta ematen.

- Garatu beharreko jarduera-motaren araberako uniformeak.

- Areto guztietako giltza, instalazio guztiak irekitzeko eta ixteko.

- Kontratua indarrean dagoen bitartean, sortzen den dokumentazio guztia, zeina Udalari urtero eman beharko dion, eskatzen zaiona.

- Udaleko langile baimenduek eskatzen dioten informazioa eman beharko du; horrez gain, Udalak edozein instalaziotan sartu ahal izango du, ikuskapen-lana egiteko.
- Erabiltzen den argindarra behar bestekoa besterik ez dela zaindu.
- Udalari jakinarazi beharko dio, 24 ordu igaro baino lehen, instalazioetan gertatzen den edozein arazo edo gertakari.

Lizitatzaileak betekizun hauek bete dituela egiaztatzeko memoria teknikoa aurkeztu beharko du, baldintza administratibo zehatzen orrian ezarritako agiriekin batera.

II. <u>ZERBITZUAREN EGINKIZUNAK</u>

1.- EHORZTEA

Hilotza horma-hilobian, hobian, panteoian eta abarrean sartuko da, dagokion tokian. Gero, kasu bakoitzean dagokion moduan hormatu edo itxiko da.

2.- HOBITIK ATERATZEA

Hilotz-hondarrak atera, eta gero hezurtegira edo dagokion tokira eramateko prestatuko dira.

3.- HILOBIEN ESLEIPENA ETA BANAKETA

Lemoako Udalak esleituko ditu, beti, Hilerriko hilobiak, haiek erabiltzeko baimena ematen duten hileta-tituluak banatuta.

III.- <u>KONTRATUAREN IRAUPENA</u>

Kontratuaren iraupena izango da Baldintza Administratiboen Orrian ezarritakoa.

IV. <u>ZERBITZUEN IKUSKAPENA ETA MAILA</u>

Lemoako Udalak une oro ikuskatuko du esleituriko zerbitzuak nola ematen diren, Baldintza-orri honetako zehaztapenei dagokienez. Bulego Teknikoak ikuskapen-zerbitzua izango du, egoki deritzon erakundearen bitartez, eta esleipendunari jakinaraziko dio zein pertsonek izan behar duten zuzeneko harremana berarekin.

Hauek izango dira Ikuskapen Zerbitzua gauzatzeko teknikarien ahalmenak:

a) Eginkizunak egoki eta adostu bezala betetzen direla zaindu.

b) Zaindu betetzen dela bai Baldintza-orrian bai, guneetako langileen kopuruari eta prestakuntzari dagokienez, esleipendunak gerora har ditzakeen balizko konpromisoen arabera ezarritakoa.

c) Eginkizunak betetzeko erabili beharreko ekipoek, makineriak eta lanabesek Baldintza-orri honetan jasotako betekizunak betetzen dituzten egiaztatu.

d) Zaindu esleipendunaren mendeko langileen higieneak, janzkerak eta gaitasunek jarduten duten lekuari eta betetzen duten misioaren garrantziari dagozkien baldintza egokiak betetzen dituztela.

e) Ur-kontsumoa ikuskatu, ureztatze egokiak egiteko beharrezko gutxienekoa izan dadin.

Teknikarien erabakiak idatziz jakinaraziko dira, eta esleipendunak edo unean uneko haren ordezkariak bete egingo ditu, berehala edo horretarako ezarritako epean.

Zerbitzuaren mailak ahalbidetu beharko du egungo egoera hobetzea, alegia, denborak eta etengabeko zaintzak eragiten dituzten hobekuntzak antzematea.

V. <u>KAPITULUA.- LANGILEAK</u>

1.- Esleipendunak ehorzteko eta hobitik ateratzeko lanak behar bezala egiteko beharrezko langileak izango ditu. Langileek arduradun bat izango dute, haien lana bideratzeko.

Enpresa esleipenduneko langileak inola ere ez dira joko Lemoako Udaleko kidetzat, harekin ez baitute izango ez lan-harremanik ez kontratuzko harremanik ez funtzionario-erakorik edo bestelakorik.

Horretarako, lizitatzaileek kontuan hartu beharko dituzte, aurkezten dituzten eskaintzetan, haien langileen kontratu-motak eta horiek bukatutakoan ordaindu beharko dizkieten balizko kalte-ordainak.

Kontratatuko den enpresak bermatu beharko du egunero egongo dela jardunean, hilotzak ehorzteko eta hobitik ateratzeko zerbitzuak emateko. Zerbitzua noiz behar den, goizeko edo arratsaldeko ordutegian, ehorzketak egiteko orduaren arabera. Ehorzteko eta hobitik ateratzeko beharrezko materialak, hala nola, adreiluak, hondarra, zementua eta abar, enpresa esleipendunak jarriko ditu.

Hilotz bat ehortzi edo hobitik atera behar denean, enpresa arduratuko da lurperatzeez eta zerbitzuez, lanak egiteko beharrezko langileak eramanda. Ehorzteko eta hobitik ateratzeko lanak egiteko une jakin batean beste langile bat atxiki beharko balitzaio zerbitzu orokorrari, horren kostua enpresa kontratugileak hartuko du bere gain.

Era berean, Udalak edukiontzi bat ezarriko du, edo gune egoki bat gaituko du, hilotz-hondarrak hobitik atera, erraztu, belarra moztu eta Hilerria garbitu osteko hondakinak botatzeko.

2.- Enpresa esleipendunak bere langileak behar bezala alta emanda izan beharko ditu Gizarte Segurantzan, eta haiekin loturiko legezko eta kontratuzko betebehar guztiak bete beharko ditu; halaber, egiaztatu beharko du ordaintzen dizkiola Udal honek izendatzen duen Sailari gizarte-aseguruen kotizazioak eta, hala badagokio, langileei dagozkien kalte-ordainak.

3.- Kontratu honetan jasotako jarduketak astean 6 egunetan egingo dira. Jaiegun ofizialtzat joko dira Lan Sailak herrialderako onartzen dituenak, igandeez gain.

VI. INSTALAZIOAK

1.- Zerbitzuaren enpresa esleipendunak udal-hilerriko instalazio eta lokal guztiak erabili ahal izango ditu.

2.- Hilerrian egin beharreko hobekuntza guztiak, instalazioetan eta lokaletan, horma-hilobietan eta abarretan, zerbitzuko beharrak asetzeko edo indarreko legeriaren arabera, Udalaren konturakoak izango dira.

VII. BITARTEKO MATERIALAK

1.- Kontratak udal-hilerrian sobera dauden hondarra, zementua eta adreiluak erabili ahal izango ditu hilotzak ehorzteko eta hobitik ateratzeko zerbitzua emateko.

2.- Zerbitzua hobetzeko edo haren baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen den materiala kontrataren konturakoa izango da.

VIII. ZABARKERIA LARRIAK

15. art.- Ondoko kasuak zabarkeria larritzat joko dira:

- Ez errespetatzea familien sinesmenak, edo horiekiko jarrera desegokiak erakustea.
- Ez izatea jarrera profesional eta adeitsua unitatean topa litezkeen hondarrekin, edo hildakoarekin.
- Ez betetzea esparruari edo eskatutako lanei aplikagarria zaien legeria.
- Esleipendunak emandako zerbitzuetan gertakarien erregistroaz ez arduratzea.
- Mandatu bat betetzeari uko egitea.
- Udalaren irudia larriki kaltetzen duen guztia.
- Udalari hirugarrenen aurreko erantzukizun zibila eskatu ahal izatea eragiten duen edozein.

Zabarkeria hauek kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daitezke.

IX. KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipendunak eta bere langileek Udalak edo familiak eman diezaieketen informazioaren gaineko konfidentzialtasunari eutsiko diote, eta, horrez gain, datuak babesteko indarreko legezko xedapenetan ezarritakoa beteko dute.